

EGAN aldizkaria, mende erdi literaturgintzan

Euskal Herriaren historian, nik dakidanez, ez da izan beste aldizkari bat euskarazko literaturgintzan 50 urtetan iraun duenik. Eta, *Egan*-ek, bere iraupenarekin aurrera begira ere itxaropena eskaintzen digula esango nuke.

Aldizkari hau 1948. urtean elebidun sortu zuen Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País - Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak. Sortu zenetik euskarazko lanak gehituz joan ziren. Izan ere, garai hartako euskal idazleek ez zuten beste inon ezer argitaratzeko erarik, frankismoak euskarari jartzen zizkion eragozpenegatik. Zazpi urterenburuan ezagutu genuen, poliki-poliki, euskarazko lanen gorakada eta aldi berean gaztelerazkoen beherakada; euskara hutsezkoa bihurtu arte.

1954. urtea zen Gipuzkoako Diputazioak Julio Urkixo Euskal Filologia Mintegia sortzeaz bere babesa eskaini ziola eta indarberritzeko asmoz idazkuntza zuzendaritza berria jarri zen. Bi erakundeok jabetzean, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray eta Koldo Mitxelenaren esku utzi zen zuzendaritza. Jaun horiek, "Asmo berri" zeritzan atariko batekin adierazi zuten beren helburua zertan zen (ikus *Egan*, 1954. urteko 2-4 zenbakian). Egitura berezia eman zitzaion gaiak sailkatuz eta bakoitzari ardurak banatuz.

Handik hogeitahamar urtera egin nuen atarikoan nioenez: *Egan*-ek izan duen alde ona, literatura gaiak soil soilik erabiltzearena izanda, tartean bestelako ekintzak nahastu gabe; horregatik, ezta euskararen aldeko proselitismorik ere ez du egin, euskarazko literaturgintza eta kitto. Ekintzan euskararen erabilera erakutsi du. Kritikak ere maiz erabili dira bertan, baina horiek ere literaturari buruzkoak eta inoiz pentsaera filosofikoen kontzeptuetan mugatuak. Eta, aurrerantzean ere hortik jarraitu nahi du. (Ikus *Egan*, 1984. urteko 5-6 zenbakia).

Euskal idazleok badakigu elebidun errealtatea erakusten digun gizar-te batean bizi garela, baina oso argi eduki behar duguna da besteekingo harremanetarako erdera erabili ahal badugu ere, gure pentsamenezko gogoetan euskara beharrekoa dugula. Hau da, gogoetazko ideiak erabil-tzeko gure hizkuntza beharrezko zaigula, gizonarentzat hizkuntza denez pentsamen eta gogoetarako sorkunde iturrien tresna. Eta, gure herriak hizkuntza jatorra baldin badu, aldi berean, bere nortasunik bereziena hizkuntzaren kultur edukina den literaturan datza.

Egan-en "Aurkibide nagusia 1948-1992" osatzen duen lanean ikus daitekeenez, berrehundik gora dira partaide izan diren euskal idazleak, batzuk eten gabe aritu izan direnak. Gainera, "Aurkibide nagusia" delako ale horren 97-103. orrialdeetan ikus dezakegunez, berrogetakak dira bes-te hizkuntzetatik itzulitako autoreak, eta ez nolanhikoak, gehienak kla-sikoak baizik.

Urte batzutan antzerkiari ere ez zaio tokirik falta izan. Ikus ditzagun Patri Urkizuren *Euskal Antzerkia* (1984) deritzan liburuaren 140-142. orrialdeak, non aurkituko ditugun sorketaz edo itzulpenez *Egan*-en argi-taratuak izan diren 36 antzerkiren xehetasunak. Liburu beretik ikus dai-take oraindik badirela antzerki aurkeztuak eta inoiz argitaragabeak. Ho-rregatik aitortu behar dut, on zaigula zenbaki bakoitzean antzerkiari bere tokia eskaintzea.

Bestalde, esan beharra dut, euskaraz mila antzerkitik gora argitara-tuak ditugunez, beharrezko zaigula kultura horren hedakundea indar-tzea, antzerki taldeak sor daitezcan, zeren bide hortatik lor ditzazkegu zinemagintzarako bide egokiak ere. Baina, hor Jaurlaritzak ere zerbait egin beharra du, Euskal Telebista zaborrontzia izango ez bada.

Urteen buruan, gizonak joan eta gizonak etorri, bizitzak berakin daka-rren legea da. *Egan*-i bultzada handia eman zioten hiru gizon haien mezua hor dugu, aipatu dudan "Asmo berri" deritzan atarikoan. Geroztik, ondoriozko emaitzak ezaguturik, esango nuke, han eskaintzen zuten egi-tura biziaren inguruan jarraitzea litzaigukeela biderik egokiena.

Gerora begira, etorriko dira berriak, gu gara Euskal Herriak.

J.S.M.